

# Utriusque Vasconiae Argitaletxea: Euskal Barataria

Uranga Alvarez, Mitxelko

2018ko irailaren 28an, 11:30etan, Donostiako EHUko Karlos Santamaria liburutegiko Andrestegi aretoan, Utriusque Vasconiae argitaletxearen aurkezpena egin zen; paradoxikoki, aurkezpena ez zen proiektu berri bati harrera egiteko, jada bukatu den proiektu bati agur esateko baizik. 18 urteren ostean, argitaletxe txikiak agur esan du behin betiko, liburuaren merkatu konplikatuari behar beste bitarteko eta indarrekin aurre egin ezinik ateak itxi behar izan baititu. Bi hamarkadetako jardunaren ostean, oraindik ere, publiko handi batentzat ezezaguna izaten jarraitzen zuen heinean, ironikoa iruditu arren, bere agurrean egin zuen argitaletxeak bere aurkezpenik hoberen eta borobilena, ezkutuan eta publizitaterik gabe egindako lan handiari omenaldia egiteko asmoz. Izan ere, Utriusque Vasconiae ezezagun bat izan da bere ibilbidean publiko handiarentzat, Euskal Herriko beste argitaletxeen itzalean egon baita. Horrelako agurra behar zuen, merezimendu osoz, oztopoak oztopo, larrua utzi baitute bidean. Zailtasun handiekin, zerotik, hasi zen egitasmoak, lortu du, azkenik, atsedean hartzea. Etengabe aurrera begira egon diren militante horiek, atzera begiratzeko parada baino ez dute orain, lana ondo egin izanaren poztasunarekin bizitzea. Zer da, baina, Utriusque Vasconiae?

Orain dela hamarkada bat izan nuen lehenengoz *Utriusque Vasconiae* proiektuaren berri, bere ibilbidearen erdialdean gutxi gora behera, ezagutzen ez nuen Joxe Azurmendi *Espektroak* izeneko eskuizkribua bidali nionean irakur zezan. Egiztan espero ez nuen erantzuna jaso nuen gutxira, sorpresarekin. Aipatu filosofo ezagunak lana argitaratzera animatu ninduen, baina ni berria nintzen argitalpen munduan eta ez nekien zer urrats eman behar nituen ere ez. Berak aukera posible batzuk eskaini zizkidan, izen konplikatuoa zuen eta ezezaguna zitzaidan argitaletxea nabarmenduz, nire lana argitaratzeko asmoa agertu baitzuten. Berehala ekin nion sarean ikertze-ari, noski, Utriusque Vasconiae delakoaren proiektuaren atzean nor zegoen ere ez bainekien. Nire harridurarako, argitaletxearen webgunerik ere ez zegoen; eta, ondo dakigun bezala, egungo garai digitalean, sarean ez dagoena ez da. Asko arakatu behar izan nuen izen bereko blog antzeko zer edo zer kaotikoarekin topatu nintzen arte. Onartu behar dut, hasiera batean behintzat, etsipena gailendu zitzaidala orduan. Txarto antolatua, estetikoki desegokia eta liburu zein idazle urriak biltzen zi-

tuena. Harrigarria iruditu zitzaidan XXI. mendean, garai digitalean, aurrera egin nahi izatea inolako marketing eta publizitate kanpainarik gabe, mundu digitalean barrera buru belarri sartu barik. Ez nuen ulertzen; are gutxiago zergatik gomendatu zitzaidan horrelako argitaletxe bat. Ez nekien apostu kontziente bat ote zen ezkutuan mantentzeko ala ezintasunagatik ote zegoen bazterrean. Nor ote zegoen anabasa horren atzean? Ze helbururekin? Zenbat iraun zezakeen bizirik? Behin argitaletxearen helburuak irakurri nituenean, paregabeak iruditu zitzaizkidan, Euskal Herrian zegoen hutsune bat betetzera etorria baitzen. Aitzitik, onartu behar dut On Kixote etorri zitzaidala gogora une hartan, esaten duena ederki dakien hori, batetik, baina egiten ari denaren inguruan ezer gutxi dakiena, bestetik. Ez neukan oso argi horrelako apustuak merezi ote zuten. Zalantzak ez ziren gutxi izan. Alabaina, Paulo Iztueta eta Jokin Apalategi, proiektuaren buruak, nirekin harremanetan jarri bezain pronto ulertu nuen nik ere euskal Barataria horren parte izan nahi nuela, abentura ero horretan parte hartu nahi nuela, jakinik ere nire liburuak ez zuela publizitate –eta, hortaz, oihartzun– handirik izango. Hala eta guztiz ere, pentsatu nuen benetan merezi zuela. Modu batean edo bestean, azkenean, abentura hori bukatu da, parte sentitu garenon ahotan sentsazio gazigozoa utziz, abentura aberasgarri baina laburra izan baita. Ondo egin nuen, jakinik goiz bukatu dela abentura? Nik uste baietz, komunitate horren kide edo parte izateaz harro egoteko arrazoi nahiko baitaude.

Lan guztia, beraiek aitortu bezala, euskal letren Kixotea den Jon Zaitegiri eskaintzen dioten legez, eskaini nahi die idazle honek lan hau euskal pentsamenduaren Kixote eta Santxo diren Paulo Iztueta eta Jokin Apalategiri. Eta ez dadila irakurlea aztoratu asmatzen zein den zein, paperak maiz aldatzen baitituzte, elkar laguntzen eta kontsolatzen, elkarrekin sufritzen eta borrokatzen, elkarri mugak jartzten eldarnioak gora egiten duenean. Izan ere, ez dute erraza izan, bizi omen zuten anakronismoaz gain –mundu analogiko modernoan harrapatuik–, aspalditik izeka egiten zizkieten eskrupulurik gabeko dukeak izan baitituzte maizegi inguruan. Izugarrizko errota erraldioen kontra oinarritzko armekin itsuki abiatzeak eraman ditu gurpil zoroan galtzera, eromenera, Nietzschek esan bezala, ameslari begitaziodunak eroturik edo eroarena egiten bizi behar baitu halabeharrez. Utriusque Vasconiae eroek sorturiko anomalia bat da, ez-ohikoa, arraroa, bazterrekoa, ulertezina, beharbada antzua askorentzat. Eromenaz ari garenean, noski, ez gara gaixo psikiko edo patologikoaz ari –benetan eroturik bukatzeko behar beste traba eta oztopo aurkitu dituzten arren bidean–, une argietan erabat zentzudunak diren gauzak esaten dituen ameslari edo begitaziodunaz baizik. Kixoterekin gertatu bezala, benetan, beraien eromena ez da pertsona arruntena baino askoz handiagoa, bai irudimentsuagoa eta zintzoagoa, ordea, beren ametsa gorpuzteko edo materializatzeko erre-alitatea nahi bezala aldatzen saiatu baitira. Alabaina, zein zaila den fantasia hori gauzatzea.

Ero bi horiek ez ziren gazteak, kontrakoa baizik; ez ziren esperientzia gabe-koak, eskarmentu handikoak baizik; beraiena ez zen eromen inkontziente edo infantil bat, beraz, xede handi baten aldeko apustu ezinezkoa baizik, ezinezkoaren filosofiaren zaldun baitziren; zigor titanikoa, beharbada. Bi titanek zuzendu izan dute, beraz, Utriusque Vasconiae. Ezin bestela izan, biek bizitza paraleloa eraman baitute, ezagutu zirenetik hamaika proiektutan sartu baitira elkarrekin. Bataila askotan ibilitakoak dira –bataila gehiegi galdu dituzte–, hortaz, beti ertzean edo

mugan; baina, beti ere, euskararen eta pentsamenduaren alde, inolako ñabardurarik gabe, zintzoki. Euskal Herria izan da beraien Dultzinea, emakume imaginario eta perfektua, etengabe errepikatzen dena, baina sekula agertzen ez dena; euskal Barataria beraien gotorlekua, beren erreinua; eta muga eta erresistentzia beraien patua.

Paulo Iztueta Berastegitarrak Erroman egin zituen filosofia ikasketak eta Parisen soziologia doktore bilakatu zen. Beti oso aktibo, 1959an bost urte iraun zituen *Arnas* aldizkaria zuzendu zuen; 1973an *Zabal* aldizkariaren sorkuntzan parte hartu zuen eta lankide izan zen 1976. urtera arte; urte bat beranduago Euskal Herri osoko Elkar argitaletxea sortu zuen eta partaide izan zen luzaroan; EKB kultur mugimenduaren sortzaile ere izan zen, eta kudeaketa lanetan ibilia 1983-1997 urte tartean; Uztaro aldizkariaren Batzorde Zientifikoko kide izan zen; eta, azkenik, 2000. urtean Utriusque Vasconiae proiektua jarri zuen martxan. 1976 eta 1988 urte tartean UZEIko lankidea izan zen eta, aro hori bukatu bezain pronto, EHUko irakasle izan zen Pedagogia Fakultatean 2006. urtera arte. Erretiroa hartu zuenean, ez zen benetako erretiroa izan, inondik inora, orduan ere Euskal Herriari zer edo zer emateko gai zela, beharrezkoa zuela, uste baitzuen. Horrenbestez, UHEZiko masterretan eskolak eta Bergarako UNEDeko ikastaroetan hizaldiak eman izan ditu. Ibilbide luze eta aktibo horretan, beti ikuspegi soziologiko batetik, politika, hizkuntza, kultura eta literaturari buruzko ikerlan mordoa argitaratu ditu. Horien artekin bereizi ohi dira, besteak beste, *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco* (1981), *Orixo eta bere garaia* (1991), *Euskal hezkuntza-sistema nazionalaren inguruan* (2017) eta, noski, saritua izan zen *Intelligentsia kimatuaren orbela* (1995).

Aldez aurretik adostutako gidoi baten bezala, pertsona beraren bi aurpegiak balira bezala, Jokin Apalategi ataundarra ere filosofian lizentziatu zen Pariseko Institutu Katolikoan eta Soziologia Diplomatura Goi Ikasketa Sozialen Eskola Pratiokoan eta, Pauloren antzera, Parisen defendatu zuen doktore-tesia soziologian. Bera ere oso aktibo, Zabal liburudendaren sortzaile eta kudeatzaile izan zen; Paulorekin batera, Euskal Herri osoko Elkar argitaletxea abiatu eta kudeaketa lanetan ibili zen; Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutuaren eta izen bereko argitaletxe-



Paulo Iztueta



Jokin Apalategi

aren sortzaile eta kudeatzaile ere izan zen; UEUko Uztaro aldizkariaren sortzaile izan zen eta bere zuzendari 2017ra arte. Zabalen eta Elkarren elkarrekin egin bezala, Jokinek Utriusque Vasconiae sortu zuen Paulorekin batera 2000. urtean. Jokin Apalategi EHura loturik egon da luzaroan, 30 urtez izan baita irakasle bertan. Soziologian doktorea izanda ere, Antropologiako titularra zen, baita Psikologia Sozialeko katedraduna. EHU ez zen izan unibertsitate bakarra, aldizka irakasle izan baita Pabe eta Aturriko Herrialdetako Unibertsitatean, Toulousen edo Perpignanen, besteak beste. Jokinnek sorkuntza-lana ere izugarria da oso, maiz zentsuraren gogortasuna pairatu duelarik. *Los vascos: de la nación al Estado* (1979), *Sociología de una nación en movimiento* (1992), *Psicosociología de los movimientos sociales vascos: sus representaciones sociales* (1999) eta *Euskal Herriaren emantzipazioaz* (2013) dira, besteak beste, nabarmentzekoak.

Bataren, bestearen zein bien arteko proiektuetan, beti konstante bat egon da, beti oinarri bera: euskara; eta, bereziki, euskarazko pentsamendua. Proiektu guztietan euskara eta euskal pentsamendua oinarri izanik, Euskal Herrian ere erroturik zegoen ideia baten aurka altxatu ziren beti, zeinen arabera euskarak ez zuen balio gai akademikoak lantzeko. Euskal gaiak lantzeko orduan ere, erdara zen nagusi. Euskaltzaindian zein bestelako erakundeetan erdaraz mintzo ziren euskal gaiak lantzeko orduan, euskal intelektualtzat ditugun gehienek bezala, nagusiki gaztelaniaz eta frantsesez egiten baitzuten. Salbuespenik bazen, noski. Horien artean nabarmentzekoak liriteke Utriusque Vasconiaeek omendu dituen Orixe eta Zaitegi. Bi talde horiez gain, bazen erdara eta euskara tartekatzen zutenena ere –erdara nagusitu ohi zelarik–, zeinetan egongo liritekeen, besteak beste, Lekuona, Laffite, Barandiaran, Azkue eta Mitxelena. Modu batean edo bestean, euskararen bazterketa horrek hiru arrazoi nagusi ohi zituen. Batetik, aipatu ezgaitasuna gai akademikoak lantzeko; bestetik, ikerketaren xedea zientzia aurreraraztea zela; eta, azkenik, argitalpenak zientzialariengana iristeko tresna zela. Euskarak ez zeukan tokiirik akademian.

Gerra osteko belaunaldiak, ostera, aurrekarien ikuspegia irauli nahi izan zuen, euskara helburu izanik. Ez bakarrik intelektualen aldetik, herri mugimenduek ere izugarritzko lana egin baitzuten zeregin horretan. Besteak beste, 1960ko hamarkada bukaeran agertu ziren lehendabiziko ikastolak, 1970ko hamarkada hasieran sortu zen UEU eta hamarkada bereko erdialdean UZEI. Elementu horiek guztiak eta gehiago ezinbestekoak izan ziren EHUn euskara sar zedin gutxika. 1980. urtean jarri zen martxan UPV-EHU Euskal Autonomi Erkidegoan, lehenengoz unibertsitate ofizialetan euskaraz ikasteko aukera eskainiz. Aukera hori erreala izan zedin, ezinbestekoa zen irakasle-ikerleek doblatzea beren asingatura euskarara. Alabaina, irakasle-ikerle-karrera egin nahi zuenak oposaketa guztiak erdaraz egin behar zituen, epaituko zuen epaimahaia estatuko bestelako unibertsitateetatik zetozen erdaldunek osatzen baitzuten, den dena erdaraz idatzi eta defendatu behar zelarik. Bestela esanda, hasiera horretan ikerketa balorazio irizpideetan ez zen, inolaz ere, euskaraz egindako ikerlanik kontenplatu. Ordutik hona, motelki bada ere, ugartuz joan dira euskaraz idatzi eta defendatutako tesiak zein ikerketa-lanak. Haatik, non bukatzen zuten euskarazko lan horiek? Nork argitaratzen zituen? Nork irakurri? Horiek, eta beste batzuk, izan ziren Paulo eta Jokin EHUKo irakasleen kezka handiak. Baten batek argitaratu behar zituen lan horiek. Kixotek bezala, kas-

keta, lantza eta ezkutua hartu beharra zegoen euskal pentsamendu horren alde borrokatzeko, lan horiek guztiak ahanzturan gal ez zitezen. Euskal pentsamenduak ahots propioa izan behar zuela aldarrikatzen saiatu ziren, horrenbestez. Nor gehiago zegoen prest?

Argia ikusi zuten: euskal gaiak bertatik begiratuta eta bertako hizkuntzan pentsatuta burutu beharra zegoen, partikularretik unibertsalera jauzia egin zezan horrek guztiak. Errealitatea, berriz, oso bestelakoa zen aspalditik, euskal gaiak atzerriko iturrietatik edanez, atzerrikoen begiz irakurtzen eta erdaraz lantzen baitziren. Kolonizazio psikologiko eta akademikoak arrotz bihurtzen zuen gure pentsamendua. Atzerriko iturrietatik edatea ere garrantzi handikoa zen arren, ezinbestekoa zuen Euskal Herriak diskurtso berri bat, euskal pentsamenduaren oinarriak bota eta eraldaketarako, euskal gizartea berrizteko, urratsak ematen hastea. Euskal pentsamenduak, Deleuzen hitzak erabiliz, tolesdurak eta birtolesdurak egitea eskatzen zuen: traizioa eta zentzu berria sortzea –izan ere, horrek jarraitzen du izaten gaur egungo egitekoa: zentzua sortzea–. Zer zen, ordea, euskal pentsamendu delako hori? Identitatearen inguruko eztabaida zaharrea ez galtzeko, “euskal” hitzak sor ditzakeen gaizkiulertuak ekiditeko, argitasunez saiatu ziren hasiera-hasieratik esaten zer adierazi nahi duten euskal pentsamendua esatean. Euskal pentsamenduz aritzean, ez dira euskal kulturaren erabilera arruntaz ari, ezta folklorismoaz edo herri etniko baten ezaugarri hutsez –horiek ere ahantzi behar ez badira ere–. Koldo Mitxelenari jarraiki, hizkuntza denez kultura jakin bati espezifikotasuna ematen diona, “euskal” hori euskara da, eta ez beste ezer. Gai orotariko lan akademikoak plaza-ratu beharra zegoela pentsatu zuten, baina euskaraz. Partikularretik unibertsalera joanez, noski, etxeko txokoan babesturik eta bazterturik geratu gabe. Hutsune hori bete beharra zegoen, eta beste inork ez zuen egingo.

Urteetan Iparraldean egon eta gero, lehendabiziko abentura Hegoaldean 1996ean hasi zuten euskal pentsamenduaren Kixotek eta Santxok, inteligentsia arrotzaren herentziari aurkaritu nahian, EHUko zenbait irakaslek “Intelektual aberztaleen plataforma” sortu zutenean; baina hauntzaren gauerdiko ezula bilakatu zen berehala, segidarik izan ez baitzuen –lehenengo batzarrera ere ez ziren bertaratu deitutako guztiak–. Ez zuen amore eman bikote eroak eta, Elkar-kideak ziren neurrian, “Pentsamendu landuaren saila eraikitzeko proiektu arrazoitua” izeneko txostena aurkeztu zuten Elkar-en, modu autonomoan kudeatuko luketela argudiatuz. Zenbait batzarretan Elkar-eko komertzialen arbuioek etsipenera eraman zituzten biak, euskal pentsamendua ez omen baitzen errentagarri. Nork demontre irakurriko zituen lan akademikoak euskaraz? Hor bukatu zen bestelako abentura hori, Elkar-en administrarien eta Elkar-en kosortzaileen arteko apurketa gertatu zenean. Haatik, elkarrekin pasiatzen zeudela etorri zitzairen ideia handia, Nietzsche pasiatzen betiereko itzuleraren irudi handia etorri zaitzaion bezala, ñabaturak ñabaturak; begitaziodun eta ameslari eroek ez zuten etsi eta, azkenik, dirurik eta azpiegiturarik gabe, zerotik, euskal Barataria sortu zuten, beren ametsa, lur promestua, beren erreinua: **Utriusque Vasconiae**.

Zerotik hasi zirela esatea ez da egia osoa, egia esan, bitarteko handirik ez zuten arren, aldamenean bidaide ederrak baitzituzten, talde txiki baina trebatua osatuz. Batetik, bikotekideak zeuden, ahal zen guztian laguntzen. Juani Azurmendi, Joxe Azurmendi filosofoaren arreba eta Paulo Iztuetaren emaztea, eta Maite Idirin,

euskaltzain ohorezko, abeslaria eta Jokin Apalategiren emaztea ziren. Denborarekin bikote bien semeak sartu ziren gutxika proiektuan, edizio lanetan laguntzeaz gain, zenbait liburu argitaratu zituztelarik. Ur Apalategi, Jokin eta Maiteren semea, ordurako idazle ezagun eta unibertsitateko irakasle zena, eta Ibai Iztueta, Paulo eta Juaniren semea, Utriusque Vasconiae argitaletxearekin zenbait liburu argitaratu dituen. Talde txiki baina konprometitu horri, gutxika, bestelako idazle talde txikia joan zaio atxikitzen bi hamarkadetan zehar. Komunitatea ez den komunitatea sortu zen, txikia baina aberatsa, anitza baina helburu berarekin: euskal pentsamendua plazaratzea. Den denok ero puntu batekin, halaberharrez.



Paulo Iztueta, Juani Azurmendi, Maite Idirin eta Jokin Apalategi

Alonso Quijanok bere buruari “Mantxako On Kixote” izena jarri zion bezala aberriaz harro zegoela adierazteko, izen arraro eta konplikatua hautatu zuten Iztuetak eta Apalategik, zaldun eroen eta aberriaren arteko harremana nabarmentzeko. Utriusque Vasconiae “izen aldrebesa da erabat, ahoskatzeko zaila eta batere komertziala”, sortzaileen hitzetan, proiektuak ez baitzuen xede komertzialik, bestelakoak baizik. Batetik, latinismoez baliatu ziren beren *intsula* izendatzeko, Kixotek berak ere irlari erreferentzia egiteko egin bezala. Bestetik, latinismoak –anagramak bezala– 1638an Arnaut Oihenartek argitaratutako *Notitia utriusque Vasconiae tum ibericae tum Aquitaniae* liburuan du jatorria, ameslari abertzaleek Euskal Herri historikoaren lurralde-batasun kulturala sinbolizatu nahi zutelako, lehenago ere *Zabal* aldizkariarekin eta Elkar argitaletxearekin egin bezala. Euskal Baratariak, azken batean, Euskal Herria du abiapuntu eta helburu, eta euskara euskarri. Azkenik, izenak ez zuen ponposoa eta erakargarria zertan izan, argitaratu beharreko lanak ere ez baitziren ponposo eta erakargarriak izango, akademikoak

baizik; “zorrik ez egitea” eslogana nagusi, merkatuarekin eta merkatuaren kontra, honakoa zuten xede nagusia: Euskal Herri historikoaren lurraldea bere osotasunean hartuz, eta bokazio akademikoarekin, euskal pentsamendua landu eta hedatzea partikularretik mundura. Hori bai erokeria! Arrazoi nahikoa abiatzeko.

Estrategia ezin txarragoa, enpresa ikuspegi batetik. Horrelako edozein proiektuk aurrera egin dezan, helburu gutxi batzuk bete beharko lituzke ezinbestean; edo, bestela esanda, honakoa galderak argi izango beharko lituzke: Zein da produktua? Nortzuk bezeroak? Nolakoa da merkatua? Nortzuk dira aurkariak? Zertan bereizten da gure produktua? Nola lortu bezeroak? Nola saldu produktua? Errentagarria da proiektua? Has gaitezen esaten, Utriusque Vasconiae lehendabiziko urratsak eman zituenean merkatua ez zela ona, argitaletxe txiki askok itxi zutela pertsiana –eta beste batzuk elkartu behar izan dute, indarrak metatu–, ezin baitzuten argitaletxe handi eta egonkorrekin lehiatu. Zentzu horretan, argitaletxe berria sortzea erokeria zen; are gehiago bitartekorik ere ez zegoenean. Utriusque Vasconiae eskaini behar zuten produktua ere ez zen bereziki erakargarria, euskarazko lan akademikoek ezin baitzuten euskarazko narratibarekin lehiatu; are gutxiago erdarazko narratibarekin. Saiakerari dagokionez, beste argitaletxe batzuek ere argitaratzen zituzten, baina gai interesgarriagoak edo ponposoagoak landuz –askotan argitaletxeak egileari eskatutako gaiak ziren, pil-pilean egon zitezkeenak–; eta, gehiengotan, modu askoz errazagoan irakurtzekoak ziren. Hortaz, bezeroa gutxiengo bat zen, bazterreko minoria bat, euskalduna eta lan akademikoak irakurtzen trebatua. Erokeria berria! Diru iturri handirik ere ez zegoen, esan bezala; Jaurlaritzaren laguntzaz aparte, ezer ez. Baina, beharbada, arazo larriena publizitatearena zen, ez baitzuen merkatuaren arauen arabera funtzionatu. Izena eta logotipoa, erabat adierazgarriak, emotiboak eta sinbolikoak baziren ere, ez ziren erakargarriak; kontrakoa, izena benetan zaila eta korapilatsua da, sortzaileek aitortu bezala. Presentzia ere oso ahula zen. Liburudenden salmenta irizpideegatik, edo auskalo zein arrazoi-rengatik, Utriusque Vasconiae libururik ikustea liburudenden apaletan benetan zaila zen; Webgune edo atari digital ona, erakargarria eta topatzeko errazik ere ez zeukaten bukaerara arte. Hasierako liburu aurkezpen bakartiak egitetik liburu bideo-trailerrak sarean eskegitzera jauzia egin arren, beranduegi hartu zuten argitaletxeak marketing digitalaren trenan. Hori izan da, ziurrenik, argitaletxearen ezintasun handiena, eguneratzen eta modernizatzen berandu ibiltzea. Esandako guztiarekin ere, erabaki kontzientea izan da gehiena, izen arraroa zuten argitaletxe hori baitzen Pauloren eta Jokinen, Jokinen eta Pauloren, ametsa, fantasia gauzatu: beren Barataria. Ikuspegi ekonomiko huts batekin hurbiltzen denak, horrenbestez, ezin izango du sekulan ulertu Utriusque Vasconiae zer izan den.

Utriusque Vasconiae, esan bezala, anomalia ulertezina da, zinez. Haatik, Joseba Gabilondok eta Eduardo Apodakak esan bezala, anomalia izan da euskal zeraren unibertsaltasuna, euskal partikularra negatiboa, ez-normala eta subalternoa baita. Euskal zerarekin bide paraleloan, hori izan baita argitaletxaren oinarri, Utriusque Vasconiae iraun egin du bere identitatea, bere partikularitasuna, desiatzen zuelako, borrokatu duelako. Euskaldunon izana ezberdin edo diferente izatean datzan moduan, Utriusque Vasconiae izana ere diferentzian oinarritzen da, modu diferentean jardun direlako, modu ezberdinean jardun nahi dutelako, Egiturarekiko modu diferentean bizi direlako. Paulok eta Jokinek ederki ulertu zuten,

jakin barik, Apodakak anomaliez esaten diguna; hots, Egiturak erdaraz egiten due-  
nez, erdaraz egin dezagun egituratzen gaituenez, ezinbestekoa zaigula eragin ho-  
rretan eten bat sortzea eta bestelako moduren batean jarduteko edo bizitzeko  
arrakalak irekitzea.

Aipatu Apodaka eta Gabilondoren arabera, diferentzia bizitzeko bi modu ez-  
berdin daude. Batetik, ikuskizun “pornoa”, zeinetan diferentziak antzezten duen  
Beste Handiarentzat, bere gozamenerako, bere onespina lortzeko; bestetik, bada  
ikuskizun “postporno” bat ere, zeinetan diferentziak ez duen espektakulurik egiten  
Beste Handiarentzat, norberarentzat baizik, bere gozamen propiorako, Bestearen  
arreta deitu barik. Gauzak horrela, analogia eginez, esan dezakegu Utriusque Vas-  
coniae eskainitakoa modu postpornoan egin duela, proiektuaren xede nagusia  
ez baitzen Identitatearen mende bizitzea edo Bestearen gozamina bilatzea, inon-  
dik inora Identitatearen altzoan gozo-gozo egotea; kontrara, argitaletxe kijoteskoak  
bere gozamina bilatzen zuen, bere baitako kide edo aktoreen gozamina. Izan ere,  
ikuskizun “postpornoetan” gertatu ohi den bezala, Utriusque Vasconiaeren kasuan,  
aktoreen eta publikoaren arteko distantzia desagertu egiten da, aktorea bera bila-  
katzen delarik publiko, argitaratutako liburuen irakurle edo publiko nagusia liburu  
horien idazleak baitira. Nork irakurtzen ditu irakasle-ikerleek egindako lan akade-  
mikoak, irakasle-ikerle talde hori ez bada? Eta, baliteke horiek ere ez, ohiartzun  
handiko mitoaren arabera Euskal Herriko idazleek ez baitugu elkar irakurtzen. Beste  
inork irakurri baditu liburu horiek, beraiekin gozatu baldin badu, publikoaren au-  
rrean nabarmendu delako baino ezin da izan, berez bereizi delako, gauzak ondo  
egin direlako. Helburua ez zen, inondik inora, ale asko saltzeko produktu pornoa  
eskaintzea, kanpora begira egindako ikuskizun publizitarioa edota ahalik eta jende  
gehiagoren gozamenerako diseinatutako ezer; Utriusque Vasconiae bere gozame-  
nerako jaio zen, gutxiengo baten plazerarako, komunitate txikia osatzeko, isilik eta  
ezkutuan arrakalak sortzen joateko; denborarekin, Euskal Herrira jauzia egiteko,  
eragiten bukatzeko.

Modu batean edo bestean, eromen jakintsu batek gidaturik ekin zioten la-  
nari, “kultura unibertitarioa euskaraz landu, idatzi eta liburukietan ematea aipa-  
turiko baldintzetan kijotismo hutsa zela jakinean ere abiatzea erabaki” zuten.  
Gauzak horrela, beren intsula propioa antolatu zuten Euskal Herri historikoaren  
baitan, Donostiako pisu batean, alegia. Etxetik gobernatzen zuten irla ez den irla,  
On Kixoten ez bezala, auzolanari esker; auzolan paregabea inauguratu zutela uste  
dute “kixoteek”, inguruan hainbat irakasle, ikerle eta tesi-egile euskaldun izan bai-  
tituzte: Iparraldekoak eta Hegoaldekoak, eskarmentudunak eta nobelak, ezagu-  
nak eta ezezagunak, iturri zaharrak eta ur berriak, baina den-denak militantzia ero  
puntu batekin; izan ere, lztuetak berriki esan bezala, uzta ikaragarria eta ponpo-  
soa izango ez zen arren, “den guztia militantzia jarraitu baten gantzuz igurtzia izan  
da”. 18 urteko militantzia kijoteskoaren ondorioak bi izan dira, horrenbestez.

Alde batetik, intsularen izaera anomaloa –eta beharbada baztertua– bitar-  
teko, euskal Baratariak lankidetza hautatua bereganatzea lortu zuen, “pentsalari-  
andana polita”, gobernadoreen hitzetan. Baina ez hori bakarrik, luma trebatu eta  
airosoak biltzea ere lortu baitute; neurri handi edo txikian, UEUK eta UZEIK irekitako  
normalizazio-bidetik, idazketa akademikoak eskatzen duen zehaztasuna, argita-  
suna eta dotorezia ezaugarri dituen prosa garatzen eta egonkortzen lagundu duen




idazle-multzo heldua. Iritzi hori du, behintzat, Paulo Iztuetak. Horrenbestez, merkatuaren arauen kontra eta mundu digitaletik kanpo borrokatu direla kontuan hartuz, uste dut emaitzak abalatzan dituela, euskal Baratariaaren gobernadore onak izan direla zinez. Fideltasunez eta zintotasunez jardunez, isuritako izerdiak bere saria izan du, hasieratik gauza handiegirik espero ez zen arren.

Beste alde batetik, 148 liburu –14 bildumatan sailkatuak– argitaratu ditu, gobernu onaren adierazle: *Bila*, *Kritika literarioa*, *Egunero irakurtzen delako*, *Euskarriak*, *Idea*, *Saiakera*, *Gutun-sorta*, *Oroitzapenak*, *Baterako Argitalpena*, *Ensayo*, *Solas literarioak*, *Fundamentos*, *Ahozkoak* eta *Narrativa*, hurrenez hurren. Liburu horiek, salbuespen txiki batzuekin, euskaraz eginkoak dira, noski, 1977an euskarak gai zientifikoak landu eta azaltzeko gaitasunik ez zuela esan zuen Adolfo Suarez oker zegoela demostratuz. Ibilbidean, ostera, zenbait garai bereizi dira, gutxika gutxika ondutako lana izan baita argitaletxearena. Lehendabiziko urratsak Hezkuntza- Zientzietako Fakultatean eman zituen 2000. urtetik aurrera. Orduantxe abiatu zen **Bila bilduma**, Paulo Iztuetaren 3 libururekin, zeintzuen artekin nabarmendu daitekeen *Hezkuntza*, *hizkuntza* eta *boterea Euskal Herrian* (2000). Horiei jarraitu zieten beste 36 liburuk, 2014. urtera arte, gehienetan ere Psikologia eta Soziologiarekin lotuak –estetika sinpledun lan akademiko serioak–. Egileen artean unibertsitateko irakasleak dira nagusi: Ander Iturriotz, Ane Larrinaga, Josu Amezaga eta Gurutze Ezkurdia, adibiderako. Aitzitik, idazle berriak ere aurkitzen da zerrenda horretan.


2002. urtean **Kritika literarioa** abian jarri zuen Ur Apalategik, bi ale nabarmentzen direlarik. Batetik, Jon Kortazar konsagratuaren *Diglosia eta euskal literatura* (2002) eta, bestetik, Ibai Atutxaren *Kanonaren gaineko nazioaz* (2012). Bilduma horretan ere, aurrekoan bezala, maila handiko intelektual ezagunak eta gazte ezezagunak nahasi dira. Bigarren bilduma horretan, ostera, aurrekariaren estilo oinarrizko eta serioaz urrundu nahian, estetika landuagoa nabari da azaletan, denborarekin hobetuz joan den gustua. Azken lau urteetan, 2010 eta 2014 urte bitartean, bildumak estilo propioa eta modernoa hartzen du, azkenik.

2004. urtean, **Egunero irakurtzen delako** eta **Solas literarioak** bildumak agertu ziren, sorkuntza literarioari ere lekutxo eskain-



tzeko. Alor horretan oso aktiboki ibili zen Jokinen semea, Ur Apalategi idazle eta irakaslea. Bere liburu bat, *Gure gauzak* S.A. (2004), nabarmentzen da, Aurelia Arkotxaren *Fragmentuak* (2009) liburuarekin batera. Bilduma horretan hogei bat liburu daude, aipatu idazleez gain Fito Rodriguez, Antonio Casado da Rocha edo Karlos Linazasoro aipa daitezkeelarik. Estetika, oraingo honetan, zainduagoa da, edizioa eta bestelakoak bezala. Nabarmena da sasoi horretan Ur Apalategiren parte-hartzea, eta proiektuaren garatzea eta eguneratzeko saiakera motela.

2006. urtean, **Gutun-Sorta bilduma** abiatzen dute, euskal idazle klasikoek gutunak argitaratzeko asmoz. Lau urtez baino ez zuen iraun bilduma horrek, urte horietan 8 harribitxi argitaratu zituztelarik, autoreak 5 badira ere; arestian aipatu Orix eta Zaitegiren gutunekin batera, Sabin Arana Goiri, Lizardi eta Bingen Ametzagarenak. Baliteke, ikuspegi komertzial batetik, bilduma hori izatea erakarpentxikien daukana, anomaloena, zaharkitu eta antzuen, talde aukeratu batentzat baina ez baita, *a priori* behintzat. Bilduma hori litzateke, horrenbestez, Paulo eta Jokinen apustu eroena, zentzugabeena... baita historiarekin eta euskal pentsamenduari saldatu beharreko zorra, beharbada. Utriusque Vasconiae etorkizunari begira egon nahi bazuen ere, neurri batean edo bestean, iraganari loturik egiten zuen beti.



Azkenik, 2013-2014an, **Bila bilduma** geroz eta nabarragoari airea emateko sortu zituzten **Ideiak** eta **Saiakera bildumak**. Honako hau zen, zalantza barik, argitaletxearen apustu argiena. **Saiakera bilduma** laburtxoan –14 liburu– baliteke nabarmenena, behintzat lortutako arrakastagatik, Pauloren semea den Ibai Iztuetaen *Cultura vasca Vs euskal kultura* (2015) izatea; **Ideiak bilduman**, beste 13 aleekin, Fito Rodriguez EHUKo irakaslea nabarmentzen da erabat, horietariko 5 berak sinatzen baititu. Berarekin batera, beste izen ezagun batzuk agertzen dira: Jokin Apalategi bera, Eneko Bidegain, Iñaki Aldekoa eta Karmele Artetxe, besteak beste. Azken urteetan, estetika lantzeko asmo berria ere nabari da, bereziki Ibai Iztuetaen lanetan, argitaletxearen azken arnasan.

Emitza objektiboa? 148 liburu 18 urtean. 8 liburu baino gehiago urteko, batzuek beste. Non leudeke lan horiek guztiak Utriusque Vasconiae ez balego? Liburu batzuek bestelako argitaletxeren baten bildumaren batean bukatuko luketen arren, ezin uka lan gehienak argitaratu gabe geratuko liratekeela, beharbada. Benetako galdera, bi hamarkada hauen jardunaren ondoren, honakoa da, beraz: beharrezkoa da beste Utriusque Vasconiae berri bat? Erantzuna ez da erraza, ez erabat, bederen, azken urteotan egoera dezente aldatu baita saiakeraren inguruan, sasoi ona bizi omen baitu.

Joseba Gabilondo saiogile eta literatur kritikariak nonbait idatzi du azken urteotako euskal literaturarik interesgarriena eta beharrezkoena saiakeraren alorrean

gertatzen ari dela, harrigarria bada ere, ez baita beti horrela izan. Gabilondoren aburuz, 60ko eta 70ko lehen sukar saiogilea amatatuta, Joxe Azurmendi mantendu da luzaroan euskal saiakeragile bakar eta modeliko bezala. 80ko eta 90ko hamarkadetan filologia eta literaturaren inguruko saiakerak argitaratu dira bereziki; eta horrela izan ez den kasuetan, 68ko belaunaldiak emandako bultzada politikoaren abaroan, gehienak erdaraz, helburua bat zen: naziogintza –Frankismoak ukatutako memoria bat berreskuratu eta asmatzea–. Gaur arte, belaunaldi horrek sortutako diskurtsoaren ildotik jarraitu dute saiakerek, gehienetan ezer berririk eskaini gabe. “Euskal ideologia” deitu dio Gabilondok 68ko belaunaldiak abiatutako garai errepikakorriari. Paradoxikoki, euskal ideologiaren kontrako saiakerek eskaini dute berrikuntza nagusi bakarra, 80ko eta 90ko hamarkadetan erdara hutsean idatzitako saiakera horiek “ideologia espainiar neonazionalista” baitzuen oinarri, eta euskal ideologiaren aurka egitea helburu. Ideologia neoispaniar ezkorrean, Gabilondoren iritzian, Savater, Juaristi eta enparauak leudeke. 1992. urtean, oster, Joxe Azurmendik idatzitako *Espainolak eta euskaldunak* liburuak, zeina ideologia neoispaniarraren eta aurreko euskal ideologiaren aurka idatzia izan zen, bira berria eman eta euskal ideologiaren bigarren aldi bati hasiera eman zion: “euskal ideologia 2.0”, “euskal postideologia” edo “euskal neonazionalismoa”, Michingango pentsalariaren arabera. Bigarren olatu horretan, 2000. urtetik aurrera idatzitako saiakerekin, Joseba Agirreazkuenaga, Eduardo Apodaka, Pako Aristi, Aingeru Epaltza, Imanol Galfarsoro, Igor Calzada, Fito Rodriguez, Jon Sarasua eta Jon Sudepe aipa daitezke, besteak beste –horietariko asko, Utriusque Vasconiae ibilitakoak, noski–. Gizonezkoek nagusiki osaturiko saiakeragileen taldeari gehitu beharko genioke azken urteotan indar handiz loratu diren saiakera feministak eta, noski, emakume saiogileen talde oparoa, zeintzuen artean topa daitezke Itziar Ziga, Eider Rodriguez, Jule Goikoetxea edo Mari Luz Esteban, beste askoren artean. Hori horrela balitz, eta horrela ematen du dela, egungo egoera ez litzateke Paulok eta Jokinek hasieran pairatutakoa, askoz hobea baizik.

Arrazoa du Gabilondok esaten duenean saiakerak garai ona bizi duela; baita euskaraz –bereziki– ere. Izan ere, 2018ko Euskadi Sarietara aurkeztutako lanen artetik, hots urte horretan argitaratutako lanen artetik, euskarazkoen artean behintzat, saiakerak dira nagusi. Juan Luis Zabala idazleak sarean eskegitako zerrendari begiraturaz gero, 23 eleberri, 19 ipuin-bilduma, 19 poesia-liburu eta 92 saiakera aipatzen dira, idazleak berak eginiko sailkapenaren arabera, noski. Kopuruak deigarriak dira oso. Alabaina, ez da oso erreala, saiakeren artean sailkatu ohi baititu saiakerak ez diren liburuak ere –horrela onartu ohi baitira Euskadi Sarian–, baina beste inon sartzetik ez daukatenak. Saiakera lanak, bere zentzu hertsian, 30 lirateke, gutxi gora behera, oraindik ere besteen gaintetik nabarmenduz –kontuan hartu behar da zenbaiten artean idatzitako artikulua edo saiakera-bildumak talde horretatik at geratu ohi dela sailkapen gehienetan, Zabalarenean bezala; hortaz, gehiago izan zitezkeen oraindik–. Egileen artean, ezagun asko: Kepa Altonaga (sariaren irabazlea bera), Agustin Arrieta, Joxe Azurmendi, Mari Luz Esteban, Jule Goikoetxea, Joseba Gabilondo, Kepa Larrea, Fito Rodriguez eta Jose Manuel Odriozola, beste askoren artean. Nork argitaratu dizkie, berriz, lanak horiei guztiei? Pamielak, Elkarrek, Ereinek, Txalapartak, Susak, Maiatzek, UEU-k eta beste batzuk, zeintzuen artean nabarmentzen diren lehendabiziko hirurak. Susak Lisipe bildumarekin



egindako apustuaz gain, saiakeraren alde apustu argia egin duen argitaletxea Pamiela dugu, 2017an 8 saiakera aurkeztu baituzten, gainontzeko argitaletxeetatik oso urrun –baina, Utriusque Vasconiaeren kopuruetatik oso gertu–.

Horrenbestez, saiakeraren azken uholdea aprobeztatuz, badira Utriusque Vasconiaeren helburuetariko bat betetzen ari diren argitaletxeak. Alabaina, zer gertatzen da beste helburuarekin, hots, euskal tesiak edo ikerketa-lanak argitaratzearena? Joxe Azurmendi, Joseba Gabilondo edo Joseba Sarrionaindiaren lan mardulak salbuespen, argitaletxe gehienek apostua egin dute saiakera labur eta irakurterez aldea, lan akademikoak at geratu ohi direlarik. Haatik, argitaletxeek, merkatuaren arauari jarraiki, horiek bezalako lanak argitaratzeari uko egin ohi dioten arren, agertu dira hu-

tsune hori moduren batean edo bestean betetzera datozen egitasmoak. Horiatariko bat dugu Buruxkak liburutegi digitala. 1910. urtean Jean Etxepare mediku eta idazle euskaldunak bere idazki-bildumari jarritako izenburua duen liburutegi digital honen helburua, Udako Euskal Unibertsitatearen eskutik, liburu, aldizkari eta doktorego-tesiak biltzea eta euskarri elektronikoan unibertsitario euskaldunei eskaintzea da, nahi bezala erabil ditzaten. Lan horietariko askoren inguruan erreferentziak eta erreseinak baino ez dauden arren, azken urteotako euskarazko doktorego-tesiak argitaratu ditu euskarri elektronikoan, oso osorik. Horra hor Utriusque Vasconiaeren bestelako xede bat, betetzen ari den bestelako hutsune bat. Dena dela, euskal Baratariaren bestelako amets bat bete gabe zegoenez, hots, euskaraz idatzi eta ikertzen dutenen komunitate zientifikoa osatzea –izan ere, arrazoia du Gabilondok horretan ere, euskal idazleek ez baitute elkarren lanak irakurtzen; are gutxiago aipatzen beren lanetan–, Udako Euskal Unibertsitateak, beste behin ere, Ikerketa egitasmoa sortu zuen, edozelako esparrutan tesia egiten edo egin berri dutenen bilgunea sortu zuen. Ikerketa kongresuetan biltzen dira egun euskal ikerlariak, elkarren berri izateko, elkarrekin biltzeko, ikuspegiak eta lanak partekatzeko. Ematen du, horrenbestez, Utriusque Vasconiaek bete nahi zuen hutsunea bestelako argitaletxe eta erakundeak bete nahi dutela egun, eta betetzen ari direla. Aitzitik, euskal Baratariarik ez dago, euskal pentsamenduaren izpiritu kijoteskoa Utriusque Vasconiaerekin joan baitzaigu ezinbestean. Agertuko ote da bestelako kioxerik Euskal Herrian? Zein izango da, hemendik aurrera, euskal anomaliaren adierazle eta defendatzaile eroa letren munduan? Nork ekingo dio hemendik aurrera euskal letren munduan erraldoiekin borrokatzeari? Nori begiratuko zaio orain eroei begiratzen zaien eran? Eta, garrantzitsuena, nork botako ditu faltan?

Oraindik fresko daukat euskal Barataria gobernatzeari utzi behar zutela esan zidaten eguna; Santxok Rikoteri aitortu bezala, irabazitako ondasunak –ez ekonomikoak– asko izan arren, emaitzarekin pozik agertu arren, penaturik zeudela atse-

dena eta loa –osasuna– galtzearen trukean izan delako, jada jarraitzeko indarririk ez zegoelako; ezta lekukoa hartzeko prest zegoenik ere. Saiatu ziren, gogotsu ere, bere legatu edo ondare preziatua besteren batek beregain hartzea, lekukoa hartu eta proiektuarekin jarraitzea. Odol gaztearen bila ibili ziren arren, inork ere ez zuen onartu erronka izugarria. Nor egon zitekeen horren eroturik? Horren antzua ote zen hasi zuten bidea inork jarraitu nahi ez izateko? Zer nolakoa izan behar du Paulok eta Jokinek pairatutako minak, desiatzen eta maitatzen duten horri inork ere ez dionean jarraipenik eman nahi? Ezin dut imajina. Modu batean edo bestean, erabakia hartu beharra zegoen, onartu nahi ez zuten egia irensten eta liseritzen hasi beharko zuten: bukatu zen bidaia; ez zegoen beste aukerarik. Horrenbestez, behin pertsiana itxi beharra zegoela onartuta, zer egingo zuten 18 urtetako lanaren emaitzarekin? Hori ere pikutara bota beharko zuten? Inondik inora! Bi gauza zituzten argi Paulok eta Jokinek. Batetik, material hori guztia ezin zela ahanzturan galdu, inolaz ere; eta, bestetik, auzolanaren eta militantziaren bidez lortutakoa izanik, ondasun kolektibotzat harturik, ezin zuela propietate pribatuaren –zuzen edo kamuflatu– eskuetan erori. Gauzak horrela, Antonio Casado da Rocharen laguntza bitarteko, azkenik, material guztia EHUri lagatzea erabaki zuten, baldintza bakar batekin: jasotako lanek etorkizuna izan dezaten kudeaketa arduratsua bideratzea. Moduren batean, lanek bukatu dute azkenik sorburu izan behar zuen tokian, EHUn.

Utriusque Vasconiaeak agur esan digu; bakarrik geratu dira Kixote eta Santxo, hasi zirenean bezala. Euskal Barataria gobernabururik gabe geratu da, biltegi batean ezkutaturik, sarera jauzia noiz egin zain. Hil zaigu Utriusque Vasconiae, beraz; eta heriotza, heriotza da. Aitzitik, Lacanek esan bezala, esaldia ez da tautologia bat, hitz bien arteko hutsuneak urrundu eta bereizi egiten baititu heriotza biak. Proiektua hil da –arima eta ondarea ez, ordea–, baina hiltzean gorpuak beti uzten du hondakin inmaterial motaren bat, mamuren bat, iraganetik datorren zera bat. Horrenbestez, heriotza, heriotza eta bere mamua da, non mamua ez den zertan mamua izan betiko, behin eta berriro gorpuztu baitaiteke. Argitaletxea hilik egon arren, baliteke etorkizun batean mamua gauzatzea, eraldaturik, beharbada aurrekariak errefuxatuz eta kritikatzuz, edo beharbada horiek goraiapatuz eta jarraituz; mamuak bizirik dirauen artean, baliteke euskal pentsamenduak bestelako abagunerik izatea, zorionez, euskal saiakeraren garaia bizi baitugu. Horixe bera da hobiratzailerik ameslari bien begitazioa, goizago edo beranduago, gazte eroen belaunaldi berri batek lekukoa hartuko duela, mamua gorpuztuko dutela. Hala izan bedi.

